

Arrain haztegiak.

Neolitiko aroan, gizakiok animaliak eta landareak hazten hasi ginen. Mendeak pasa ahala, elikatzeke, espezieak menderatu, hobetu eta gurutzatzea lortu dugu, baina hori beti ere lurlean bizi diren espeziei dagokienez.

Bitartean, ur-azpiko baliabideek, batez itsasokoek, amaigabeak eta ezin menderatuzkoak ziruditen. XX. mendearen bigarren erdira arte ez ginen konturatu itsasoari eskaini ziezagukeena baino gehiago eskatzen geniola, batez ere inguru jendeztatuenetan, Mediterraneoan, adibidez.

Arrain haztegiak itsasoko iraultza neolitikoa izan zitezkeela pentsatzen genuen. Haztegietan bizi daitezkeen espezieak gutxi batzuk izan arren, itsas haztegien zabalkundeak enpresei eta kontsumitzaileari onurak ekarri zizkien.

Urraburuek, txikiak oraindik, karioletan itxiak, janaria inolako ahaleginik gabe aurkitzen dute: pentsua ematen zaie. Eta interes batengatik ematen zaie: Tripartita honek arraina merkatuan plazaratzeko neurria iritsi arte baino ez du iraungo.

Baina haztegietan ere, etekinak ez dira dohainik: Jabeek haztegien zaintzari erantzuteko beharra dute ekoizpen prozesu osoan zehar. Pentsua ematez gain, kaiolak itsasoan kokatu, egoera onean mantendu, konpondu eta arrainen garapena une oro ikuskatu beharra dute.

Alacant-ego kostaldean aurkitzen dira sektore honetako enpresa gehienak. Arrantzaleek maiz ez dituzte begi onez ikusten, eurak haztegietako ekoizpenarekin lehian daude-eta. Horretaz gain, haztegiei urak eutrofizatu eta ekosistemari kalte egitea lepora dakieke.

Kaiolen inguruan bizitzean, haztegien onura gehienetaz balia daiteke, desabantailarik pairatu gabe. Arrain ugari bertaratzen da pentsu apurren bila, elikagaiaren bertako oparotasuna aprobetxatzen dute, sukalde batean amaitzeko arrisku zuzenik gabe.

Hondo hareatsuetan, bestelako espezieak aurkitzen dira: belakia... aszidi... oskoldun txikiak...; hondoetako organismo iragazleek ere haztegietatik datozen hondakinak aprobetxatzen dituzte.

Gai organikoen gehiegizko presentziak elikadura katearen hurrengo mailetan ere ondorioak dakartza. Karramarroak eta izkirak onura ateratzen dute haztegiak luzatzen dien oturuntzatik.

Bitartean, urraburuek korrontearen kontrako norabidean igeri egiten dute, nonbaitera joango balira bezala, kaiola beraien betirako zoria izango ez bailitzan; portuko biltegi batera eramango dituen zoria, itsasoaren hondo zabaletara edota arrain handiago baten ahora eraman beharrean.